Código de validación/*Balidazio kodea*
4N1I216N4H6B3N2Z137M

AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
Fecha/Data 20-02-2018
Num./Zk. CIP/5/15/2018

*Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien Informazio-batzordeak 2018ko otsailaren 20an hartutako erabakiz Udalbatzarraren iritzipean jarriko da Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta aurkeztutako Erakunde Adierazpenari onesteari buruzko ondorengo ebazpen proposamena, organo horrek, hurrengo bilkurara bertaratzen diren udal-korporazioko kideen aho batez, gaiari buruz erabaki dezan:*

Por la Comisión Informativa de Asuntos Generales y de Pleno celebrada el día 20 de febrero de 2018, se eleva al Pleno de la Corporación para que adopte acuerdo al respecto, en la primera sesión que celebre, por unanimidad de los/as miembros de la Corporación presentes en la sesión de aquélla, sobre Propuesta de resolución sobre la Declaración Institucional con motivo de la celebración 8 de marzo Día Internacional de las Mujeres.

*Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta Berdintasuneko Udal Kontseiluak proposatutako erakunde adierazpen jarraian idatzita dagoena, onestea:.*

Aprobar la Declaración Institucional propuesta por el Consejo Municipal de Igualdad con motivo de la celebración 8 de marzo Día Internacional de las Mujeres, que se transcribe a continuación:

*“Martxoaren 8 honetan emakumeak grebara”.*

“Las mujeres paran este 8 de marzo”.

*Emakumeek mundua mugitzen dute, baina hala ere, mundu-mailan, jarlekuen %23a besterik ez dute betetzen emakumeek. Lana daukatenei gizonei baino gutxiago ordaintzen zaie eta lanean duten segurtasun gabezia handiagoa da. Horrez gain erabakiak hartzen diren erantzukizunezko lanpostuetan eta zientzia eta teknologia bezalako alorretan ez daukate ordezkaritza nahikoa, nahiz eta unibertsitatean hobeak diren. Emakumeak zerbitzuen arloan kokatzen dira gehien bat, eta okupazio eta sektorekako bereizketa hori generoan oinarritutako egitura-oztopoen eta diskriminazioaren ondorioetako bat da, pobrezia, lan-orduen malgutasun falta, adin guztietako mendeko pertsonentzat zaintza zerbitzu eskuragarri eta kalitatezkoeik izateko aukera mugatua edo aukerarik eza, amatasun- eta aitatasun-lizentzia gaietan*

Las mujeres mueven el mundo y, sin embargo, a escala mundial, solo un 23% de los escaños parlamentarios están ocupados por mujeres. Las que tienen empleo están peor remuneradas que los hombres y en situación de mayor inseguridad laboral. Además, están insuficientemente representadas en puestos con responsabilidad de toma de decisiones y en campos como la ciencia y la tecnología, aunque sean mejores en la Universidad. Las mujeres se ubican predominantemente en el sector servicios, y esta segregación sectorial y ocupacional es una de las consecuencias de las barreras estructurales y de la discriminación basadas en el género, como la pobreza, la falta de flexibilidad de los horarios de trabajo, el acceso limitado o nulo a servicios de cuidado asequibles y de calidad para personas dependientes de

*diren gabezia politiko eta gizarte-jarrerak bezala, besteak beste. Emakumeak munduko 500 enpresarik garrantzitsuenen %4aren buru baino ez dira. Mundu-mailan emakumeek, balio bereko lanagatik, 77 zentimo besterik ez dute irabazten gizonek irabazten duten dolar bakoitzeko. Emakumeek, gainera, askoz aukera gutxiago dute pentsioa kobratzeko, nahiz eta gizonek baino 2,5 aldiz gehiago gutxienez egiten dituzten etxeko lanak eta inolako ordainik gabekoak. Munduko emakumeen %28ak baino ez dauka egiaz amatasun lizentzia-motaren bat ordainduta. Talderik ahulenetako bat langile migratzaileena da, horietako gehienak emakumeak izanik, eta horien erdiak baino gehiagok ez dauka lanaldi mugaturik. Indarkeria matxistari dagokionean Europako emakumeen %55ak sexu-erasoak jasan ditu noizbait 15 urte bete zituztenetik; horietatik %23ak lanean. Espainiar Estatuan 2017ko otsaila izan da feminizidioagatik hildako gehien izan dituena azken hamar urteotan, 15 emakume baino gehiago hil baitituzte.*

*Adibide-zerrenda amaigabea da.*

*Errealitate horri aurre egiteko antolatuta, hainbat denbora daramate emakumeek gizaldietako diskriminazio horri amaiera eman dakiola eskatzen, beraiei batez ere, baina bai eta gizarte osoari ere dagokion arazo bat delako. Guztiz zaila da justizia- eta demokrazia-irudia mantentzea ia munduko biztanleen erdia, emakumeak, indarkeria matxisten ondorioak eta "patriarkatuaren osasun oneko semeen" gehiegikeriak pairatzen ari direnean".*

cualquier edad, las deficientes políticas en materia de licencia de maternidad y paternidad y las actitudes sociales, entre otros muchos factores. Las mujeres lideran únicamente el 4% de las 500 empresas más importantes del mundo. A nivel mundial, las mujeres solo ganan 77 céntimos por cada dólar que ganan los hombres, por un trabajo de igual valor. Ellas tienen, además, una probabilidad muy inferior de cobrar una pensión, pero desarrollan al menos 2,5 veces más trabajo de hogar y de cuidados no remunerados que los hombres. Tan solo un 28% de las mujeres trabajadoras del mundo disfrutan en la práctica de algún tipo de licencia de maternidad remunerada. Uno de los grupos más vulnerables son las trabajadoras migrantes, cuya inmensa mayoría son mujeres: más de la mitad no tienen una jornada laboral limitada. Respecto a la violencia machista, un 55% de las mujeres europeas han experimentado acoso sexual al menos en alguna ocasión desde que cumplieron 15 años. De ellas un 23% lo sufrió en el trabajo. En el estado español, febrero de 2017 fue el mes con más muertes por feminicidio desde hace diez años, con más de 15 mujeres asesinadas.

El listado es interminable.

Organizadas frente a esta realidad, las mujeres vienen exigiendo que se acabe con esta discriminación secular que, aunque las daña principalmente a ellas, afecta a toda la sociedad. Se hace muy difícil mantener una imagen de justicia y democracia cuando prácticamente la mitad de la población mundial, las mujeres, sufre las consecuencias de las violencias machistas y los abusos por parte de los "hijos sanos del patriarcado".

*Martxoaren 8 bakoitzean emakumeek errealitatea aldatzeko beraien borroka aldarrikatzen dute, urteko egun bakoitzean borrokatzen dute emakumeek hori lortzeko eta arrazoi asko daude oraindik ere borrokan jarraitzeko. Horregatik 2017ko martxoan milaka emakumek nazioarteko lanuzte batean parte hartu zuten mundu osoan "ezin delako gizateriaren erdia diskriminatuta egotea eta ezer ez gertatzea".*

Cada 8 de marzo, las mujeres reivindican su lucha para cambiar la realidad; cada día del año las mujeres luchan para conseguirlo y sigue habiendo muchos motivos para seguir haciéndolo. Por ello, miles de mujeres de todo el mundo participaron, en marzo de 2017, en un paro internacional, "porque no se puede discriminar a la mitad de la humanidad y que no ocurra nada".

*Martxoaren 8 honetan gauza asko dago ospatzeko: borroka feministak eta emakumeenak lortutako hainbeste garaipen, mundu hau guztiok bizitzeko leku hobea bilakatuz. Baina are gehiago oraindik aldarrikatzeko: Munduko Ekonomi Foroaren datuen arabera egungo martxan 169 urte behar ditugu ekonomi berdintasuna lortzeko.*

Este 8 de marzo hay mucho que celebrar, tantos y tantos logros conseguidos por las luchas feministas y de las mujeres, que han hecho de este mundo un lugar mucho mejor para la vida de todas y todos. Pero sobre todo hay mucho que reivindicar. Según los datos del Foro Económico Mundial, al ritmo actual faltan 169 años para alcanzar la igualdad económica.

*Erakunde eta udal gobernuak bereziki, hiritarrengandik hurbilen daudenak direlako, sentiberak izan behar dute egoera larri honekiko eta berori baztertzeko aktiboki lagundu, gizarte eragileekin, mugimendu feministarekin eta emakumeekin koordinatuta elkarlanean arituz.*

Las instituciones, los gobiernos municipales de manera especial, por ser los más cercanos a la ciudadanía, deben ser sensibles a esta grave situación y contribuir de forma activa a removerla, trabajando en coordinación y colaboración con los y las agentes sociales, con el movimiento feminista y con las mujeres.

*Berdintasunaren alde, indarkeria matxisten kontra, zaintza-lanak egin beharraren kontra, hezkuntz eskubidearen alde, eskubide eta bizitzak errespetatuko dituzten kontsumo-eredu berrien alde, soldata-etenaren kontra, diskriminazioa geldiarazteko… munduko emakume antolakundeek Emakumeen Nazioarteko Greba egitera deitzen dute aurten ere. Martxoaren 8an izango da mundu-mailako jarraipen-ekimen legez planteatua, helburua patriarkatua eta bere indarkeriak agerian uztea eta emakumeen eginkizunak gizarte-antolaketaren lau zutabe nagusitan zalantzan jartzea izanik: lan-mailan, ikasle-*

Por la igualdad, contra las violencias machistas, contra la obligatoriedad de los cuidados, por el derecho a la educación, por nuevos modelos de consumo que respeten derechos y vidas, contra la brecha salarial, para frenar la discriminación… las organizaciones de mujeres del mundo convocan –un año más- una Huelga internacional de las mujeres, que tendrá lugar el próximo 8 de marzo, en una iniciativa global de continuidad cuyo objetivo es visibilizar el patriarcado y sus violencias y cuestionar el papel de las mujeres en cuatro ejes centrales de la organización social: la esfera laboral, la estudiantil, el consumo y el

*eremuan, kontsumoan eta zaintza- eta ugalketa-lanetan.*

*Egoera horren JAKITUN izanik Ermuko Udala Berdintasuneko Udal Kontseiluaren ekimenarekin bat dator eta, nazioarteko ekintza-proposamenaren ildotik, harekin bat egiten du, ondoko konpromisoak hartuz:*

*1.- Berdintasun udal egiturak, hala nola Emakumeen Topalekua, Jabekuntza Eskola, Berdintasuneko Kontseilua sendotzen eta ziurtatzen jarraitzeko konpromisoa, udalerriko bizitza-eremu guztietan emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko udal politikentzako baliabide izaten jarrai daitezen.*

*2.- Udalerriko emakumeen jabekuntza eta parte-hartze soziopolitikoa bultzatzen lagunduko duten ekintza zehatzak inplementatzeko konpromisoa.*

*3.- Berdintasun Kontseiluaren bitartez herriko mugimendu feminista eta emakumeenekin koordinazioa eta lankidetza sendotzeko konpromisoa.*

*4.- Genero-desberdintasunak, eta batez ere enplegua eta zaintza-lanaren banaketa ezberdina, salatzeko konpromisoa eta berdintasunezko udalerri baterantz abiatzeko.*

*5.- Emakumeei eta Ermuko herritar guztiei, talde edo alderdi politiko ezberdinekiko lotura alde batera utzita, salaketa horrekin bat egitera deitzeko konpromisoa, eta Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Egunerako antolatuta dauden bi ekintzetan parte hartzera animatzeko: bata, greba feministarekin bat egiteko, hamabost minutuko geldialdi sinbolikoa eguerdiko 12:00etan Martxoaren 8a plazaren sarreran, eta bigarrena, hogeita hamar minutuko*

trabajo de cuidados y reproductivos.

CONSCIENTE de esta situación, el Ayuntamiento de ERMUA comparte y apoya la iniciativa del Consejo municipal de Igualdad, en línea con la propuesta de acción internacional, y se compromete a:

1.- Continuar reforzando y garantizando las estructuras municipales de igualdad, tales como la Casa de las Mujeres, la Escuela de Empoderamiento y el Consejo de Igualdad, para que sigan siendo recursos a disposición de las políticas municipales a favor de la igualdad de mujeres y hombres, en todos los ámbitos de la vida municipal

2.- Implementar acciones específicas que faciliten el empoderamiento y el fomento de la participación sociopolítica de las mujeres del municipio.

3.- Reforzar la coordinación y colaboración con el movimiento feminista y de mujeres local, a través del Consejo de Igualdad.

4.- Denunciar las desigualdades de género, en especial el desigual reparto del empleo y los cuidados, y caminar hacia un municipio equitativo.

5.- Convocar a las mujeres, y ciudadanía de Ermua en general, a sumarse a la denuncia, independientemente de su vinculación a grupos o partidos políticos, y a participar en los dos actos que convoca para el día 8 de marzo, día internacional de las mujeres: el primero, un paro simbólico de quince minutos de duración, en apoyo a la huelga feminista, a las 12:00 del mediodía en la entrada a la Plaza 8 de marzo (junto al Ayuntamiento); y el segundo, una concentración ciudadana de denuncia contra

*hiritar-kontzentrazio bat generoagatiko diskriminazioaren kontra 19:00etatik aurrera Orbe Kardinala plazan.*

la discriminación de género, de treinta minutos, a partir de las 19:00 horas en la plaza Cardenal Orbe.

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 5 Abstenzioak 1 (ez zegoen)* | PSE-EE/PSOE: A favor 5 Abstenciones 1 (ausente) |
| *EH Bildu: Aldekoak 1* | EH Bildu: A favor 1 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 3* | EAJ/PNV: A favor 3 |
| *Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 1* | Se puede Ermua Ahal da: A favor 1 |
| *PP: Aldekoak 1 Abstenzioak 1* | PP: A favor 1 Abstenciones 1 |
| *Irabazi: Aldekoak 1* | Irabazi: A favor 1 |

Fdo./Sin.:
Secretaria/Idazkaria
Mª Mar Arranz Olmos
20-02-2018 14:44